

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AZKOITIKO UDALAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Azkoitiko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena gehiengoz onetsi dute Osoko kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak Udala, bere toki erakunde autonomoak eta sozietate publikoa -zeinetan partaidetza nagusia duen- barne hartzen ditu; txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra plazaratu du eta ekonomia-finantza jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dutela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Langileen atalean azpimarratu da Udalak udal langile finko bat erakunde autonomoetako batean koordinatzaile lanpostura atxiki duela modu zuzenean, Funtzio Publikoan lanpostuak betetzean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak eta erakunde autonomoetako batek urratu egin dituztela hiru kasutan administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak: bi kontratu exekututzen jarraitu dira nahiz indarraldia amaitua zen; beste kontratu batean lizitazioari ez zaio publikotasunik eman DOUEn eta BOEn.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, Udalaren kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 64 mila euroan murriztu duena.

Azkoitia Lantzen, SAri dagokionez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruz HKEEK duen iritzia aldekoa da, nahiz hainbat ez-betetze eta salbuespen azpimarratu diren, txostenean jaso direnak.

Bada, aipatutako sozietateak merkataritza sozietateekin 10 milioi euroren lur-besterentzeak egin ditu, etorkizunean hirigintzako aprobetxamenduak bideratuko dituzten hirigintzako aldaketak izapidetzeko baldintzapean, modu zuzenean eta eragiketa justifikatuko duen administrazioko espedienterik ez txostenik izan gabe; ezta, prezio justifikatuko duen balorazio txostenik ere; berebat, beste merkataritza sozietate batekin kontratua izenpetu du, non lursail bat besterentzeko prezioa eta beste bat erosteko eskubidea, guztira 4 milioi eurorena, besterendutako ondasunaren merkatuko balioa ezagutzeko bide emango duen balorazio txostenik izan gabe gauzatu den.

Azkoitia Lantzen, SAren Urteko Kontuei buruz Epaitegik aldeko iritzia eman du aurkezpen eta edukiari dagokionez eta adierazi du, badirela hala ere, hainbat salbuespen, txostenean xehatu direnak; hona hemen esanguratsuenak: Aditu askeek egindako tasaziorik eza, Egoera Balantzearen “Izakinak” idazpuruan erosketa kostuarekin balioztaturiko lursail eta eraikuntzen egungo balio garbi egingarria ezagutzeko bide emango dutenak; hori dela eta, ezin jakin daiteke narriadura osagarriren bat aitortzea beharrezkoa ote litzatekeen; gainera, Sozietatearen kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz salbuespena azpimarratu du, Funts Propioak 2,5 milioi euroan murrizten dituenak.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2010eko ekitaldian gastu arruntari eta inbertsioei eusteko politika abian jarri dela jakinarazi da, 2009an izan zen Diruzaintza Geldikin paretsukoari eusteko bide eman duena, zorpetzea % 14an jaistea lortzeaz gain. Nolanahi den ere, 2010eko ekitaldi amaieran zor biziak sarrera arrunten % 92,6 egin du eta horrek eragotzi egin dio Udalari 2011n kreditu eragiketa berriak hitzartzea.